

2026

Eusko Ikaskuntza-LABORAL Kutxa Gazte Saria

Eusko Ikaskuntza - LABORAL Kutxa Gazte Sariaren helburua Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien alorretan lanean ari diren gazte norbanako nahiz talde proiektuak saritzea da.

Bi motatakoak izan daitezke eskabideak:

- ♦ **Sorkuntza edo ikerketa proiektuak:** humanitateen, kultura, arteak –zentzu zabalenean ulertuta: musika, dantza, antzerkigintza, margogintza, eskulturagintza, literatura, ikus-entzunezkoak...– edo gizarte zientzien alorreko proposamenak gauzatzeko saria.
- ♦ **Goi-mailako erakundeetan egonaldiak:** humanitateen, kultura, arteak eta gizarte zientzien gaitako izaera zientifiko-akademikoa duten ikerketa edota lan artistikoak gauzatzeko goi mailako ikerketa erakundeetan egonaldiak gauzatzeko saria.

Alorrak

Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientziak

Hautagaitzak

Gazte norbanakoei edota taldeei zuzenduta dago. Egonaldien modalitatean, banaka bakarrik aurkeztu ahal izango dira.

Hautagaiek 1991. urtetik aurrera jaiotakoak izan beharko dute.

Saria

6.000 euroko sari bakarra emango da.

Epaimahaiak saria eman gabe utzi dezake, egoki iritziz gero.

Bete beharreko baldintzak

- ♦ Emate ekitaldian parte-hartzea ezinbesteko baldintza izango da saria jasotzeko.
- ♦ Saritutako lanaren ekarpen nagusiak bilduko duen artikulua bat idatzi beharko da *Revista Internacional de los Estudios Vascos, RIEVen* (CC 4.0 lizentzian) argitaratzeari begira.
- ♦ Proposamenak originala izan beharko dira. Beste erakunde batek garatutako proposamenak ez dira onartuak izango.
- ♦ Saritutako lanaren lagin bat hurrengo urteko sari-banaketan aurkeztu beharko da.

Proposamena gauzatzeko epea

- ♦ **Sorkuntza edo ikerketa proiektuak:** 2026-2027 urte bitartean. Ordainketa, emate ekitaldian.
- ♦ **Goi-mailako erakundeetan egonaldiak** 2026 eta 2028 urte bitartean. Egonaldiaren hasieran gauzatuko da ordainketa.

Saria jasotzeak aurkeztutako proposamena gauzatzeko betebeharra dakar berekin.



Informazio gehiago:
Eusko Ikaskuntza
Bergara, 19. 20005 – Donostia
Tel. + 34 943 31 08 55

info@eusko-ikaskuntza.eus – www.eusko-ikaskuntza.eus



**EUSKO
IKASKUNTZA**
Asmoz ta Jakitez

Irizpideak

Ondoko irizpide izango ditu epaimahaiak kontuan saria emateko orduan:

- Hautagaien **curriculum vitae**
- **Edukia** sariaren helburuekin
lerrokatuta egotea
- Izaera **berritzaile** izatea
- **Etorkizuneko** proiektzioa
edukitzea
- **Originaltasuna**
- **Gaurkotasuna**
- **Euskararen** erabilera
- **Nazioarteko** proiektzioa
- **Egingarritasuna**
- Aurkeztutako lanak –ahal den
neurrian– **genero ikuspuntua**
eta hizkuntzaren erabilera ez
sexista kontuan izatea

Aurkeztu beharreko dokumentazioa

- ♦ **Lanaren memoria:** izenburua, laburpena, helburu zehatzen deskribapena, kronograma edo plangintza, helburu orokorrak (bost orrialde gehienez). Baldintza hau betetzen ez dituzten hautagaiak ez dira onartuak izango.
 - ♦ **Curriculum Vitae arautua** (www.eusko-ikaskuntza.eus webgunean eskuragarri). Taldearen kasuan, kide guztien CV. Taldean aurkeztu ezkeror arduradun bat izendatu beharko da.
- Dokumentazioa euskarri informatikoan info@eusko-ikaskuntza.eus helbidera bidali behar da. Eskabidea aurkezteak esan nahi du oinarrietan zehazten diren baldintzak, www.eusko-ikaskuntza.eus webgunean daudenak, berariaz eta formalki onartzen direla.

Epeak

2026ko otsailaren 1etik martxoaren 31a arte.

Epaimahaiaren erabakia Eusko Ikaskuntzaren webgunearen bitartez adieraziko da.

Epaimahaia

Epaimahaia Humanitateak, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientziak alorreko adituek osatuko dute.

Lanaren jabetza

Saritutako proposamena jabetza egile edo egileena izango da. Lan horren edozein zabalkundean sariaren bi erakunde bultzatzaileen aipamena egin behar da.